

Nov. 1971

Mondragoiko Kooperatibotako langileeri:

Azken-aldiko aste gutan gertatuen aurrean ez gaitezke ixilik gelditu. Gure lagiletasunak burruka egitera bultzatzen gaitu. Guztiok dakigu delako kamio zaleen "txantxulloaren" barri. Azalxamarretik bederen Ulgor'ko zuzendaritzaren bidez dakigu. Guk, langileok, eskubidea dugun eta parte hartu behar genuke miaketa serio eta sakonik egin gabe gelditu eta arazoari ixilik ihes egitea utzi eta tapatzen ongi jakin du Ulgor'ko J.R.'ak.

Lantegitik bidalia izan dan jauntxo horrez gainera, goragoko mailako norbait errudun danik oraingoz ezin izango dugu jakin. Guk ez dugu gertakizunaren informaziorik artu eta ez dugu izan miaketarako eskubiderik ere.

Geroztik, zuzmur mailan bada ere (argi gutxi baidago gure komunidadetan) Zubillagako Fagor Industrialeko arazoaz ere zerbait jakin dugu, goimailako zuzendarietako batena alegia. Arazo orretaz ez dugu oraindik ezeren azalpenik jaso. Hala ere, hainbeste zuzmur ibili arren inork ez du ukatu gertakizun hori, ez eta kompetentziko empresa kapitalista batekin izan diran konponketak ere. Gertakizun hauek sistema berdinarean mende jarraitzen dugula adierazten digute beste tipo bateko empresako langileak ginanean bazain zapalduak jarraituz, naiz eta, beste langileen berdinak ez garala buruan sartzen ahaleginak egin.

Jauntxo horiek gure lanaren izerdia edaten (ez dakigu noiztik) bizi izan ondoren nahi bezela irtetzen utziaz gainera, biak lapur halako horiek kompetentziko enpresetan sartzekoak dire. Bi gertakizun lotsagarri hauen ondoren hara zer gertatu den Fagor Elektronikako gure lagun neska batzuekin: Produktzio ritmoan eta zapaltzaileen sistemaren azpian arturik, hitzegiten ere utzi gabe "expedientea" egin zaie eta horrela egun batzuetarako etxera bidaliak eta saririk gabe utziak izan dire; eta hauen alde jarri ziren lagun batzuek, ezeren explikaziorik gabe eta hitz egiten ere utzi gabe, txepelki Ulgor'era bidaliak izan dire. Baina honetan ere beren taktika maltzurra erabili dute: Beren gogoz Ulgor'era joan nahi zuten talde batekin batera bidali dituzte, jondearen aurrean, beren gogoz joanak izan balira bezela agertzeko. Emen ikusten da zuzendariek ez dituztela berdin tratatzen gizon ugari baina goimailakoak, eta zu eta ni bezelako langile zintzoak, lanean arrastaka gabiltzanok.

Hemengo Gerente, zuzendari, J.R. eta kooperatibismoa, ona dela esanez dabil-tzan horiek klasismoarik ez dagoela asko esaten ba dute ere gertakizun hauek garbi agertzen dute ba dagoela "klasismoa" eta hauek nahikoa ez ba dira. Sikusi "Las cosas son lo que son" izeneko artikulua 132'garren T.U. aldizkarian, ordaintzea danok behartuak gauden, baina klase zapaltzaile burges bati bakarrik serbitzen dion aldizkari hori.

Artikulo honen izenburu hono. hau hobea izango litzake: "Gauzak egiten diran bezelakoak dire". Kooperatiba sistema hau heltzen ariden gal, utasun edo usteltasunaren zergatia eta burgesen usteltasuna adierazten duten esaldien ondoren, gu langileentzat eta gure lagun guztientzat botatzen dituzten tiroak. Artikulo guztia esatera zitaloz betea, bada goce, esacerarik nazkagarriena eta iguingarriena hau da: "Ikusgarria da gutxi batzuek egiten dutena guk ezin dugulako ez dugula egiten". Gertakizunak "momentu txar" bateko gauzak direla ta justifikatuaz gainera, gu horrelakorik egiteko gauza ez goralako ez dugula egiten esaten digu. Berotuta ari da fascistaekin hau gure klasea azpiratzen. Alfer zikin hauek 4'garren zatian, demokrazia ta askatasuna merezi izateko konpromisoa hartzeko gauza izan behar dugula di. Zer konpromiso? Egunero 14 ordu eta egunean baino egunean ritmo handiarekin zapaltzen gaitun sistema honekin. Demokrazi ederrea bada, hitz txarrei bidez langileok azpiratzen ari da ta!.

Ba dakigu, indizeen eskala gehitze honi gure EZETZA gaizki hartua izan dela goimailako zuzendari eta teknikoan aldetik, hau da: kooperatibismoan helduak daudela esaten dutenengandik. Zer gertatzen zaie gure zuzendari heldu horiei?. Hainbeste heldutasunez ez ziran ba usteldu egingo?

San Andresko eta Zubillagako gertakizunen azalpen bat eskatzen diegu zuzendari hauei, errudun horiekin bat daudela agertu nahi ez ba dute.

T.U. zuzendariari 132'garren zenbakiko artikulo gaitzesalaren zuzenpena eskatzen diegu.

Zigorrez toki aldatuak izan diren gure lagun neska horiek berriro beren tokietara ezere galerarik gabe biurtuak izan ditezela eskatzen dugu eta egun batzuetarako etxera bidaliak izan ziran sari osoak ematea.

Lagunak elkargaitzen! Taldeak egin ditzagun eta lehen dauden tokietan indartu eta zabaldu. Gure interesak aldeztu ditzagun eta indartu dezagun ogiatzko demokrazi bakarra, langilearen demokrazia alegia.